



iRRiA

aldizkari

ZER JAN,
HUra izan!



2012ko azaroa • 19 zenbakia - 5,75 €

TRINIDADIAK



Egunero jantzita daramagun ilusia

zure ziztada
behar dugu

Sartu eta ikusi
www.berria.info/berriatb



Izan zaitez
berrialaguna
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

iRRiA
aldizkaria



auRkibidEa

4. PIRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Jaten duguna gara!

Testua: Mitxel Murua / Marrazkiak: Julen Tokero, Cesar Gonzalez

8. ZENBATAK. Otartekoa.

Testua: Edorta Berruetabeña

Marrazkiak: Asisko Urmeneta, Joseba Ponce

10. LAGUN. Lagun txakurra oporretan, Euskal Herrian barrena.

Testua: Amets Arzallus / Marrazkiak: Eider Eibar

12. LARGABISTA. Minik ematen ez duten haginak.

Testua: Harkaitz Kano / Marrazkiak: Iñaki Holgado, Jorge Madejón

15. LANDABISTA. *Taxus baccata*

Testua: Jakoba Errekondo / Marrazkiak: Julen Tokero

16. MARTIN BERTSO. Irria berreskuratzeko pilulak!

Testua: Pako Aristi / Marrazkiak: Iosu Mitxelena

20. POSTERRA

Marrazkiak: Julen Tokero, Cesar Gonzalez

23. FILOSOFO TXIKIAK

Handitzeko asko jan behar al da?

Testua: Sophie Furlaud. / Marrazkiak: Dorothée de Monfreid

© BAYARD PRESSE

28. MARIKALANBRE. Gosaltzeko burdina.

Testua: Ana Galarraga, Elhuyar Fundazioa

Marrazkiak: Iosu Mitxelena

31. ANE PIRATA ETA PATAKON. Bonetxearen altxorra.

Testua: Pako Aristi / Marrazkiak: Iosu Mitxelena

34. PUPU ETA LORE. Bihotzaren leihoak.

Testua: Uxue Alberdi / Marrazkiak: Julen Tokero, Cesar Gonzalez

36. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Aspanogi Elkartea.

Testua: Amagoia Mujika. Marrazkiak: Jose Anjel Lopetegi

ZER JAN HURRA IZAN!

«Aizu, handitzeko asko jan behar da, e!» Nork ez dio noizbait bere seme-alabari lelo hau errepikatu?

Haurren elikadura ez da txantxetako kontua. Denen ahotan dago «kantitateari» baino, «kalitateari» eman behar diogula garrantzia. Baina, azken urte hauetako datuek diotenez, haurren obesitatea hirukoiztu egin omen da! Nola da posible?

Adituek diotenez, hazkunde horren zergatiak oso garbi daude: prestatutako elikagai eta janari azkar gehiago, ariketa fisiko gutxiago.

Gizentasuna XXI. mendeko epidemia gisa definitzen dute medikuek eta, berehalako neurriak hartu behar omen dira gure haurren elikadura-arazoak kontrolatzeko. Garbi dago, etxeko txikiei ere menu orekatu bat eskaini behar diegula.

Beraz, has gaitezen azken urte hauetan gizartean txertatzen joan diren ohiturei buelta ematen eta gogora dezagun Porrotxek eta konpainiak hilabete honetako ipuinean diotena: jaten duguna gara!

IRRIA aldizkaria Irrien Lagunak Klubaren hilabetekaria
19 zenbakia - 2012ko azaroa

Argitaratzailea: Irrien Lagunak, SL

Egoitza: Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien etorbidea, z/g
20140 Andoain, Gipuzkoa

Posta elektronikoa: irria@irrienlagunak.com

Lege Gordailua: SS-1381-2010 / ISSN: 2172-5519

Koordinatzailea: Josi Oiarbide

Diseinua: Olatz Goikouria


Publizitatea: publi@irrienlagunak.com

Bezero arreta: 902-820 806

Inprimategia: Leitzaran Grafikak


Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Uxue Alberdi, Pako Aristi, Amets Arzallus, Harkaitz Cano, Mitxel Murua, Elhuyar Fundazioa (Ana Galarraga), Amagoia Mujika, Bikain Diseinu Grafikoa (Cesar Gonzalez, Iñaki Iturriza, Belen Moreno, Julen Tokero), Dirudi (Eider Eibar), Lotura Films (Jose Mari Morcillo, Iosu Mitxelena, Jose Anjel Lopetegi), Somuga (Edorta Berruetabeña, Asisko Urmeneta, Joseba Ponce) eta Txatxilipurdi elkartea.

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza



JATEN DUGUNA GARA!

Behin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots adiskide batzuekin elkartu ziren, merienda egiteko. Pantxita mexikarrak arto-buruak erreta eraman zituen jateko. Ying txinatarrak arroza. Eta Atahualpa peruarrak patata egosiak. Lagun txakurra ere han zen, Pupu eta Lorerekin jolasean.



Janari guztiak mahai ganean utzi zituzten, denak nahastuta, eta orduan Lagun usainka hasi zen; aurrena janari bat usaindu, gero hura ekarri zuenarengana joan eta zaunka egiten zuen, au, au, au! Adiskide bakoitza janari batekin lotzen zuen txakur bizkorrak.

Denak barrez hasi ziren, eta jolas bat asmatu zuten:

-Begiak tapatuko dizkizugu, Lagun, eta ea orduan asmatzen duzun nork zer ekarri duen -esan zion Porrotxek.



Eztabaidan hasi ziren hura nola ote zen posible.

–Niri normala iruditzen zait bakoitzak gehien jaten duen janariaren usaina izatea! –esan zuen Pantxitak–. Mexikarrok egunero jaten dugu artoa, goizez, eguerdiz eta gauetz.

–Guk ere bai arroza –esan zuen Yíngek–. Elkarri zer moduz gauden galdetzeko euskaraz “zer moduz?” esaten dugu, eta txineraz “jan duzu arroza?”, arroza janez gero, ondo sentitzen garelako.



Orduan, denak konturatu ziren jaten duguna garelako.

–Eta hemendik aurrera denok denetik gehiago jango bagenu? –proposatu zuen Yángek.

–Dibertigarriagoa izango litzateke –onartu zuen Pantxitak.

–Eta osasuntsuagoa ere bai –erantsi zuen Atahualpak.

–Nik ez dut gari–usaina bakarrik izan nahi –purrusta egin zuen Porrotxek.

ZENBATAK



OTARTEKOA



Klasea bukatzen denean, Marizortzi parkera joaten da aitarekin askaria jatera.



Baina gaur Marizortzik ideia bat izan du: ei, lagunak, aldatuko ditugu otartekoak?



Eta horrela, Marizortzik kakao-krema jan du, Joseik txorizoa eta Zortzikok tofua! Ze ona den gauza berriak dastatzea!

BETI BERDINA!



Aitak beti prestatzen dio tofu-otartekoa. Eta Marizortzi aspertuta dago beti berdina jateaz.

BETI BERDINA!



Bere lagunei ere gauza bera gertatzen zaie. Zortzikori beti jartzen diote txorizoa. Eta Joseiri beti kakao-krema.



Askaldu ondoren, Marizortziri gehien gustatzen zaiona egin dute: lagunekin jolastu.

ZE OTARTEKO GOZOA!



Eta etxerako bidean Marizortzik eta aitak otartekoez hitz egin dute. Marizortzik arrazoi du: denetik jatea komeni da.

LAGUN

LAGUN TXAKURRA OPORRETAN,
EUSKAL HERRIAN BARRENA



Bilbon dena da handi, Lagun txakurrak liliputiar bat dirudi.



Donibane Garazi, nork zaitu hola galarazi?



Lagun Zeledonon tokira igoa,
zer ikara eta zer bertigoa!



Lagun, hemen
Amaiurreko gaztelua
zegoen, Nafarroako
erresumako azken
gotorlekuetakoa

Autoan edo bizikletan bidaiatu behar da
aurrena, gero egiteko denboran barrena.



Miarritzeko hondartza bai polita,
Lagun xutik eta Porrotx erorita.



Egia da kantuak dakarrena, Xiberua
bazter guzietako xokorik ederrena.



Ieeeeeeup!
Ieeeeeeup!

Arraunlarien besoetan indarra dago,
baina itsasoaren baitan gehiago.



Largabista

MINIK EMATEN EZ DUTEN HAGINAK

GAUR HAGINAK IKUSTERA!

EZ GOAZ HAGINLARIARENERA, MENDIRA BAIZIK! HAGINAK ARBOLAK ERE BADIRA!



ARMARRIETAN ASKOTAN AGERTZEN DA HAGINA: GIPIZKOAKO ARMARRIKO ZUHAITZAK, ADIBIDEZ, HIRU HAGIN DIRA. ZUHAITZ HAUEN BABESEAN EGITEN ZIREN GARAI BATEAN HERRIETAKO BATZARRAK...



HAGINEN ARTEAN, LANDARE ARRAK ETA EMEAK DAUDE. HOSTOAK BERDE ILUNAK ETA IRAUNKORRAK DIRA. ZUHAITZ EMEEK FRUITU GORRIA EMATEN DUTE....



LANDARE OSOA POZOITSUA DA: HOSTO, AZAL, EGUR, SUSTRAI... BAITA HAZIA ERE! BAINA EZ HAZIA BILTZEN DUEN FRUITU MAMITSUA. HAU GORRIA DA, ETA TXORIAK ERAKARTZEN DITU FRUITUA JAN ETA HAZIA ZABAL DEZATEN...





LANDA BISTA



- **Familia:** Taxaceae
- **Izen arrunta:** Hagina
- **Espezia:** Taxus baccata
- **Etimologia:** Taxus latineko izen klasikoa da, baccata hitzak fruitu mamitsua duela dio.

- ✦ Konifero hau 15 metrorainokoa izan ohi da heldua denean.
- ✦ Hostoak berde ilunak eta iraunkorrak dira, eta zuhaitz emeek fruitu gorria ematen dute.
- ✦ Gure toponimian ederki txertatua dago: Aginaga, Agineta, Aginagalde, Aginako, Agina...
- ✦ Hagina zuhaitz mitologikoa da eta antzinatek erabili izan da bere zura, tresna eta altzariak egiteko, baita bere pozoia ere, ehizarako adibidez.
- ✦ Zenbait kondairak diote baskoiek pozoia haur erromatarren eskuetan erori baino lehen beren buruaz beste egiteko erabiltzen zutela.
- ✦ Gaur egungo medikuntzan erabilpen ugari du.
- ✦ Euskal Herrian 8 hagin monumentu natural izendatu dira, babesa ziurtatu nahian.



Pupu gaixo dago. Txokolate gehiegi jan du eta orain tripako mina.

PUPUK IRRIBARREA GALDU DU!

NEURRIAN JAN BEHAR DA, GORPUTZA BEHARTU GABE!



IRRIA BERRESKURATZEKO PILULAK



Tiritatxo desesperatuta dago. Ezin ditu Pupu eta Lore biak batera zaindu!

TIRITATXOK ERE IRRIA GALDU DU!

AAH! AAH! AAH!

Amona Maritxinparta dator bisitan, baina hau ere gaixo: hanburgesa bat jan du patata frijituekin!

AMONAK ERE IRRIA GALDU DU!

MEDIKUARI KASO EGIN BANIO ETA BERDURA JAN...



HAU GEHIEGI DA NIRETZAT!

Lore ere negarrez hasi da. Gereziak jan nahi ditu! Baina azaroan gaude, ez dago gerezirik!

Sasoian sasoikoak ez diren janariak urrundik ekarri behar dira kamioietan. Huentzat gasolina asko behar da. Oso garestia da.

SASOIKO JANARIAK HARTU BEHAR DIRA!

LOREK ERE IRRIA GALDU DU!



KAMIOIEK AIREA KUTSATZEN DUTE, ETA OKERRENA: MAROKOKO UMEEN GEREZIAK JANGO DITUGU!



Konturatu zarete Lagun dela alai dagoen bakarra? Zergatik ote? Bere senari kaso egiten diolako. Ez du gehiegi jaten. Natural bizi da.



IRRIRIK GABE EZ GARA EZER, INORK EZ GAITU MAITE!

SARDINA BAKALAU!

UUU! UUU!

Nola berreskuratu irria eta bizitzeko gogo?
Horra misterioa.



Oreka behar da ongi bizitzeko,
oreka kanpoan, oreka barruan.



Purritx, Porrotx eta Marri Motots

25 URTEZ SENTITU, PENTSATU ETA EGIN!

IRRIEN LAGUNAK KLUBEKO PAILAZOENTZAT URTE BEREZIA DA AURTENGOA. **HOGOITA BOST URTE** IGARO DIRA JADA SUDUR GORRIAK ETA ZAPATA HANDIAK JANTZI ETA HERRIZ HERRI EUSKARA ETA ALAITASUNA ZABALTZEN HASI ZIRENETIK.



ASKO DIRA URTEAK, ETA GEHIAGO EUSKAL HERRIKO LAGUNEKIN BATERA BIZI IZAN DITUZTEN ABENTURAK. ELKARREKIN PARTEKATUTAKO IRRIAK, MALKOAK, MUXUAK ETA BESARKADAK. IKUSKIZUN XUME BATEKIN HASI ZIREN HAIEN JAIOTERRIAN. LASARTE ORIAN, KALEAN ETA ESKOLATAN EUSKARA OSO GUTXI ENTZUTEN ZELAKO, PAILAZOEN EMANALDIA HAUREN ARTEAN GURE HIZKUNTZA MODU ALAIAN ZABALTZEKO AUKERA POLITA ZELA IRITZITA.

POLIKI-POLIKI, EUSKARAZ ONGI PASATZEKO HELBURUARI HAURENTZAT ETA FAMILIARENTZAT BALIO HEZIGARRIAK ZABALTZEKO AHALEGINA GEHITU ZIOTEN. **ORAIN DELA BI URTE, BERRIA ETA ELKAR ARGITALETXEAREKIN BATERA, IRRIEN LAGUNAK KLUBA SORTU ZUTEN.**

URTE HAUREN GUZTIETAN, TALDEAREN KULTUR EMARIA OSO ZABALA IZAN DA. UGARIAK DIRA HAINBAT ELKARTEREKIN EGINDAKO ELKARLANAK ERE. **KATXIPORRETA PAILAZO TALDEAREN HELBURU NAGUSIA, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ALAI BIZITZEKO AUKERA EGI BIHURTZE DA, ETA EZ OMEN DITUZTE ZAPATAK ERANTZIKO, HARIK ETA GUZTION ARTEAN EUSKAL HERRIA EUSKAL IRRI BIHURTU ARTE..**





iRRia aldizKaRia,
2012ko aZaRoA

KATXIPORRETAREN DISKO BERRIA!

25 URTEKO JARDUNA ETA BIZITAKO ABENTURAK OSPATZEKO DISKO SINFONIKOA GRABATU DUTE PAILAZOEK. URTE HAUTAN BILDUTAKO ABESTIEN ARTEAN AUKERATUTAKOekin OSATUA.


HILABETE AMAIERAN EGINGO DUTE DISKO ETA IKUSKIZUN BERRIAREN AURKEZPENA:

SENTITU, PENTSATU, EKIN!

OSPAKIZUN URTEA DUTE. HORTAZ, AGERTOKIZ KANPO EZ EZIK. BAITA OHOLTZA GAINEAN ERE. IZAN ERE, PAILAZOON AMONA JOSEFINAK 100 URTE BETEKO BAITITU! PIRRITXEN, PORROTXEN, MARI MOTOTSEN ETA PUPU ETA LOREREN ESKUETAKO HATZAK ZEIN OINETAKO BEHAZAK ERE BEHAR DIRA HALAKO ZENBAKI POTOLOA ZENBATU ETA OSATZEKO! PAILAZOAK ETA LAGUNAK AMONAREN BASERRIRA JOANGO DIRA AMONA ETA JADA BIRRAMONA ERE BADENAREKIN FESTA EGITERA. ZAHARRA BEZAIN POLITA, ARGIA ETA IRUDIMENTSUA DA AMONA. DENEK ZORIONDU NAHI DUTE JOSEFINA MAITAGARRIA. BADA NORBAIT, ORDEA, FESTA ZAPUZTU NAHI DUENA, ETA PAILAZOEN JARDUNA OZTOPATZEN SAIATUKO DENA ETENGABE. LORTUKO OTE DU? ALA MAITASUNA ETA ALAITASUNA GAILENDUKO OTE DIRA AZKENIK? ZATOZ PAILAZOekin BATERA AMONA JOSEFINARI ZORIONAK ZURI ABESTERA!



Elkarrekin pentsatzeko koadrija! FILOSOFO TXIKIAK



HANDITZEKO ASKO JAN BEHAR AL DA?



1



NI EZ NAIZ
HANDIA BAINA
ASKO JATEN DUT!

2



ETA JANAK INDARRA
EMATEN DIT
TXIRRINDAN
IBILTZEKO!


3




BAI, NIK ASKO
JATEN DUT!

BAINA,
GELAKO
TXIKENA
NAIZ.

6



XERRI ASKO JATEN
DU, DENETIK
JATEN DU... NAHIZ
ETA OSO HANDIA
EZ IZAN!



NIK DENETIK
JATEN DUT!

5

OSO ONDO XERRI, FRUTAK,
BERDURAK, ESNEKIAK...
DENETIK JAN BEHAR DUGU!

ETA
MAKARROIAK
ERE BAI, E?

4




AIZU, TXIKIA EDO HANDIA
IZATEA EZ DAGO GURE ESKU!

BAI, AMAK
HORI ESATEN
DIT!

GAINERA, ASKO BAINO,
DENETIK JAN BEHAR DUGU!

GUSTATZEN
ZAIGUNA, ETA
GUSTATZEN EZ
ZAIGUNA.



ZURE USTEZ, HANDITZEKO...



ASKO JAN BEHAR AL DA?

Marikalanbre

GOSALTZEKO, BURDINA



Marikalanbre txundituta geratu da Tiritatxok mesan dionarekin: elikagai batzuek burdina omen dute, ezpatek edo trenak bezalaxe, eta osasuntsu egoteko, behar-beharrezkoa omen dugu burdina!

—Amona -galdetu dio etxera iritsi denean-. Zuk ba al zenekien hori?

—Bai, pittin. Dilistek, adibidez, burdina asko dute. Beste janari batzuei, berriz, gosaritako zerealei esaterako, burdina gehitzen diete, osasungarriagoak izan daitezten.



Hori entzunda, burutazio bat izan du Marikalanbrek:

—Amona, zerealei burdina bota badiete, iman batekin badago hura kentzea?

—Zuk zer uste duzu? -zirikatu du Amona Txinpartak.

—Baietz -erantzun dio, ziur, Marikalanbrek.

—Ea bada! Goazen proba egitera!!



Hala, bien artean, zerealak hartu, ura gehitu, eta ore bat egin dute, irabiagailuaren laguntzarekin. Gero, makilatxo bati lotutako iman bat sartu dute orean, eta han ibili dira, eragin eta eragin, hamar bat minutuz. Imana atera dutenean, hantxe zegoen zerealei botatako burdina!



Bonetxearen altxorra

ANE PIRATA ETA PATAKON



Egunak daramatzate piratek itsasoan, arrantzatzen dutena janez. Panga arraina, adibidez.



Laster nahi duzuen guztia jango dugu -esan du Patakonek-. Kabiarra, langosta...



Domingo Bonetxea Getariako marinel bat zen, Polinesiaraino iritsi zena. Tautira uhartean hil zen.



BONETXEA
1775EAN HIL ZEN,
ETA BERAREKIN LURPERATU
ZUTEN ALTXORRA EZ DU
INORK AURKITU!

MARINELAKI ABANTE
TAUTIRA UHARTERA!



Piratak ilunabarrean iritsi dira, isilpean, sekretu handiz. Arriskutsua izan liteke.



ERNE, ZABALIK
BEGIAK, TENTUZ
PAUSOAI!

ALTXORRA GURE
ZAIN DAGO!

Gau osoan oinez...

SEGURU ZAUDE?

LASTER BEHAR
DU!



Egunsentian iritsi
dira lekura.



ERMITATIK
SEI PAUSO,
ARBOLATIK
HAMAIKA...

EMAN PALARI, PATXIJAI!

Azkenean! Hor dago
kutxa lurraren azpian!

IUJUJU!!!

ITXOIN IREKI
ARTE!



Horra ezustekoa: kutxa hutsik dago.
Tira, ez erabat. Mezu bat dago.



HERRIA MAITE BADUZU,
IRRIA EZ DUZU INOIZ GALDUKO!

ARRAZOI DUI
GOZEN EUSKAL
HERRIRAI!

Haizea alde dute, itsasoa lasai
dago. Abante Euskal Herrira!



BONETXEAK BAZEKIEN
ZERBAITI!

BERA ERE HERRITIK
URRUN HIL ZEN!



PUPU LORE BIZI-BIZI

BIHOTZAREN LEIHOAK



1
EZPAIN ERTZAK BEHERA, PUPU TRISTE DA.



4
BELZTU DU KOPETA, HASERRE DAGO ETA!



5
AHOA IREKI... LOAK IRABAZTEN DU BETI.



2
HARTUZ GERO POZAK... ERAKUSTEN DITU HORTZAKI!



3
BEGIAK BOROBIL... EZIN SINISTUTA DABIL.



6
MASAILAK KOLORE: LOTSATU EGIN AL DA LORE?




7
BEGIAK, MASAILAK, KOPETAK, AHOAK...
BIHOTZAREN LEIHOAK!

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

ASPANOGI ELKARTEA

Ane pirata ospitalera joan da gaur, Aspanogikoei laguntzera. Hartzak neguan kobazuloan lozorroan egoten diren bezala egon behar du Marimok isolamendu gelan indarrak pilatzeko. Ondoa dauka beti ama.



Marimo eta ama agurtu ondoren, Ane badoa gelatik. Irtetean, sorpresa bat hartu du.





EDONORK?
BERDINDA
AFRIKARRA EDO
EUSKALDUNA
IZAN?

EDONORK EZ, EMATEN
DUENAREN ETA HARTZEN
DUENAREN AMA ZELULEK
OSO-OSO ANTZEKOAK IZAN
BEHAR DUTE, BATERAGARRIAK
IZAN BEHAR DUTE.

Hezur-muineko zelulak
bateragarriak dire-
nean, hartzailearen
gorputzean prime-
ran bizi daitezke eta
gaixoa senda daiteke.

EDERKI. NIK
ERE EMANGO DUT
HEZUR-MUINA.

EZ DA HAIN ERRAZA ANE.
LEHENDABIZI ODOL ANALISIA
EGITEN DIZUTE ZER NOLAKO HEZUR-MUINA
DAUKAZUN JAKITEKO. GERO, ZUREKIN
BATERAGARRIA DEN NORBAITEK HEZUR-MUINA
BEHARKO BALU, BERRIZ DEITU ETA ORDUAN
HARTZEN DUTE ZURE HEZUR-MUINA.

BAI,
HILABETEETAKO
EDO URTEETAKO
KONTUA
IZAN DAITEKE.



Hezur-muina ematea ez da zaila, baina ez da odola ematea
bezain erraza. Ebakuntza txiki bat egin behar da eta egun
pare batean ospitalean egon behar da.



ZUK OSO GARBI
DAUKAZU HEZUR-MUINA
EMAN NAHI DUZULA,
EZTA?

BAI, LUZE
ARITU NAIZ PENTSATZEN
ETA EMATEA ERABAKI DUT. NORBAITI
LAGUNGARRIA BAZAIO ETA NIRI
KALTERIK EKARTZEN EZ BADIT,
ZERGATIK EZ?

ZEIN
JATORRA
ZAREN
PATAKON!

EGIA DA,
BAINA GUTXIENEZ
MARIMORENTZAT
BALITZ...

MUNDUKO BESTE TXOKOREN
BATEAN EGONGO DA NORBAIT MARIMORI
LAGUNTZEKO PREST DAGOENA
ETA MUNDUKO BESTE LEKUREN BATEAN MARIMO
BEZALAKO BESTE NORBAIT EGONGO DA
SENDATZEKO, HEZUR-MUIN
BATEN ZAIN DAGOENA.



Gaixotasunarentzat denak gara berdinak, ez gara hangoak edo
hemengoak. Hezur-muina ematean gauza berdina gertatzen da,
denok bihurtzen gara elkarri laguntzeko prest dauden mundutar.

ASPANOGI



Aspanogi Gipuzkoako Haur
Minbizidunen Gurasoen
Elkartea da. 1996. urtean
eratu zen eta 1998. urtean
hasi zen martxan, lau fami-
liaren bultzadari esker.



Bere helburu nagusia minbizia duten
haurren gurasoen egunerokoa erraztea
da. Arazo horiei norberak eta bakarrik
aurre egitea zaila eta nekeza da eta
horretarako dago elkartea.

Egoera larri horren aurrean familiak
bakarrik ez sentitzea da elkartearen
egitekoa, gurasoen buruhauste bakarra
bere seme-alaben irria izan dadin.

**Euskal Herriko herrialde guztietan
daude Aspanogi bezalako guraso
elkartek.**

TXARA eraikuntza, 1- Gizagune, 3. Bulegoa
Zarategi pasealekua, 100. 20015 Donostia
Telefonoa eta faxa: 943245620
www.aspanogi.org
info@aspanogi.org

● Printze Txikiaren ipuin klasikotik ateratako irudiek
★ abentura bihurtzen dituzte memoria eta domino JOKO hauek



Mundua irudikatzen
ALBUM ILUSTRATU
ederrak



TTARTTALO